

Suntsitze arma pasiboa



BEIA SALABERRI
IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

Zer errana ematen dute hizkuntza eta teknologia uztartzen dituzten tresnek, batez ere euskalgintza-aren alorrean lan egiten dutenen artean. Betidanik. Berriki, itzultzaile automatikoei dituzte bazterrak inarrostean. Izan ere, maiz sortzen dira salaketa saioak, erreminta hauek gutxietsiz eta nolabait euskararen aldeko indarraren etsai gisa aurkeztuz, eta gaiak lagunarteko nahiz profesionalen arteko solasak elikatzen ditu. Leporatzen zaie protokolorik gabe, kalitate bermerik gabe zabaldu izana, euskarazko sortzaileen ordezkio bihurtzea, langabeziara bidaliko gaituztenak izatea, *diglosi frendly* izatea erdal kutsuko testu kaskar eta gezak sortuz. Hots, suntsitze arma masiboak dira.

Alabaina, ausart ote gaitezke beste hizkuntza guzietan dutenari uko egiten euskaldunok? Ez ote dugu guk ere merezi aurrerapen guzi horiek ukaitea? Euskara hizkuntza txikia izanik, teknologiak beldurak pizten ditu, jarreraz kezkatzea hobe genukeelarik.

Izan ere, paraleloan, informazioaren igorle gisa ohartzen ez bagara ere, hartzaile gisa ongi etortzen zaizkigu itzultzaileak, edozein hizkuntzatarakoak, bi-tartekarien saihesteko eta informazioa lehen eskukoa izateko orduan, eduki

batzuk zabaltzen-jasotzen ditugu zuzenean iturritik-iturrira eta komeni zaigu. Hortik, desira dezagun gurearengatik, besteen kasuan estimatzen duguna, desira diezaiogun munduari gure ulertzea, guk mundua ulertzea desiratzen dugun moldean.

Lehen ere egon dira teknologiaren inguruko kezkek. Garai bakoitzean entzun eta bizi izan ditut nihaurrek ere arrangura horiek: “Ikasleak egonen dira *online*, ahots automatikoei kontsignak irakurritik eta programek idazlana zuzenduz”. Bizkitartean, gaurdaino, ez didate lanik kendu, behintzat ez tresnek, eta ez dut behin ere entzun euskara ikasleak horrelako hauturik hobetsi duenik eta emankorra izan denik. Dakidanez ez da egon nehor –seriosik– itzulpenetarako holako tresnarengan soilik eta osoki fidatu denik.

Bihar, ordezkaturiko gaituzte gure lanetan? Itzulpena lanbide duenarentzat, ez dut uste berri ona denik, ezin uka, aldiz irakasleek biziraunen dugu ene iduriko. Izan ere, hizkuntzaren parte ez linguistikoa, subjektibitatea eta kultura, nekez du ordenagailuak menperatuko. Hitz baten hautatzea bestea baino, subjektuak egiten du. Testuinguruaren eta xedeen finezia, zuzeneko afera bat da.

Aterabide iraunkorragoa izanen da beti hizkuntza batean sortzea edo xede hizkuntza birsortzea. Euskal herrian integratu nahi duenak, komunitatean integratu beharko du eta, goiz ala berant, hizkuntza ikastera helduko da, beste gisaz, denbora galduko bailuke itzulpenetan, ez bailuke parekoa sakonki ulertuko, finezia galduko lukeelako eta sustut testuinguruaren parte handi batek ihes egingen liokeelako, hala nola komunitatearen erreferentziek, modak, iraganak, erlazionatzeko moldeak.

Izatekotan, hau da arazoa: komunitateak aski trinkoak ez diren lekuetan, eremu erdi des-euskaldunduetan, nola egingen da mantentzeko presio sozial aski handia euskara ikastearen beharra hain gutxi den tokian? Garbiki errateko, hemen euskaraz ari da kontzientzia eta borondate politikoa duen pertsona, bestela ez baita deus horretara akuilatzen gaituenik. Etorkizunean, hori aldatu ezean, euskara ikasteko hozpil denari kalitatezko tresna ematen bazaio, zergatik joanen da gau eskolara?

Dena dela, aldaketa ekarriko dute eta gaituzte beharko dugu izan dezakegun erresistentzia erreflexa, atzerakada, izua, gureganatzeko, gure zerbitzurakoa izateko, ona eta aldekoa. ●